

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 3771

*AGINDUA, 2022ko abuztuaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez ebazten baita Hezkuntza Saileko Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari zentralaren lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia.*

Urtarrilaren 13ko 3/2009 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duenak, Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskatzaile zentralaren lanpostua ezarri zuen. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 12. artikuluan jasotzen dira haren eginkizunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 10.6 artikulua xedatzen duenez, ikuskatzaile zentralak zuzenean egongo dira ikuskatzaile nagusiaren mende, eta hezkuntzaren alorrean eskumena duen saileko titularrak izendatuko ditu, ikuskatzaile nagusiak proposatuta, izendapen askeko prozeduraren bidez.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 47. eta 48. artikuluetan eta Hezkuntzako sailburuaren 2021eko otsailaren 5eko Aginduaren laugarren oinarrian (2021eko martxoaren 3ko EHAA) –sail honetan lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena– xedatutakoaren arabera, hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Deialdiko lanposturako hautagairik aurkeztu ez denez, prozedura bete gabe utzi dela adieraztea.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 18a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.